BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, HONAKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO:

IPINTZA FUTBOL ZELAIKO BELAR ARTIFIZIALA HORNITU ETA INSTALATZEA, ZELAIAREN LURZORUAREN PLANIMETRIA EGOKIA JARTZEA, ZELAIAREN SARE PERIMETRALA HORNITU ETA INSTALATZEA, ETA, URETZTATZE ETA KANALETEN SISTEMAREN BERRIKUSPEN ETA EGOKITZAPENA

1.- AURREKARIAK:

Ipintza futbol zelaiari 2008an jarri zitzaion azken belar artifiziala. Hori egin zenetik 15 urte pasatu dira eta zelai berria jartzea erabaki da. Horretaz gain, futbol zelaiko guztiari konponketa bat ematea erabaki da, hala nola, erregadio sistema zein ur-hodiak errepasatu eta sare perimetrala berritzea. Kokapen planoa 1. Eranskina.

2.- XEDEA ETA HELBURUAK:

Zerbitzu hornidura honekin, Ipintza futbol zelaiko belarra, porteriak, inguruko sarea, aspertsoreak eta sareta berriak jarri beharko dira. Halaber, azpiko zoruaren planimetria zuzendu eta ura eramateko kanaleten sistema konpondu beharko da, beharrezkoa bada.

3.- EGIN BEHARREKO LANAK:

Kontratu honen xedea da Bergarako Ipintzako futbol zelaiko belar artifiziala ordeztea. Jarraian zehaztutako modelo zein markak erreferentziazkoak dira, baliokideak onartuko direlarik, eta baliokidetasuna egiaztatzea lizitatzaileari dagokio.

Zehazki, honako hauek egin beharko ditu adjudikazio-hartzaileak:

3.1.- Egungo belar artifiziala kentzea eta porteriak desmuntatzea;

3.2.- Aglomeratu asfaltikoan hautematen diren kalteak konpontzea: oinarriaren gainazala garbitzea, planimetria egokia eta malda jarraitua egiaztatuz, baita mahukarekin ere, beharrezkoa izanez gero. Behaketa xehatua egingo da akatsak, pitzadurak, altxatzeak, konkortuak eta sakonuneak detektatzeko, eta soropil berria instalatu aurretik konponduko dira. Konpontzeko, asfaltoa, morteroa edo auto-nibelatzailea edo poliuretano-erretxina (asfalto hotza, morteroa edo eslurria) erabiliko da, lodieraren arabera. Planimetria egokia egiaztatzeko, ureztatze-proba egingo da, eremu-azalera osoan ur-metaketarik ez dagoela egiaztatzeko. Uraren gehieneko geldialdi-maila 3 mm-koa izango da (1 €-ko txanpon baten lodiera).

Planimetriako planoa – II. eranskina.

Konponketa hori beharko duen azalera futbol-**zelaiaren azalera osoaren % 10** izango dela aurreikusten da. Konpondu beharreko azalerak eremuaren azalera osoaren % 10 gainditzen badu, betiere ez bada Baldintza Administratibo Zehatzen Agirietan jasotako hobekuntza eskaintzen, gainazal hori bereiz fakturatuko da, Udalak aldez aurretik onartutako aurrekontuaren arabera.

ESKU2adb2bb2-33e9-4949-9ec8-b5c7e9ea38b2

3.3.- Futbol 7ko 4 ate eraisgarri (*abatible*), baina finkoak hornitzea (bakoitza bere sarearekin) eta instalatzea. Eskainitako porteriak Espainiako federazioaren araudiak futbol 7rako onartutakoak izan behar dira.

3.4.- Egiaztatu eta konpondu, behar izanez gero, beharrezko ekipamendu-elementuak eusteko zapatak eta ainguraketak (porteriak, banderatxoak, aspertsoreak, etab.) eta kirol-ekipamenduaren muntaia (futbol-11ko eta futbol-7ko banderatxoak)

3.5.- Belar artifizial berria hornitzea eta instalatzea:

Soropil erroiluak 4 metro inguruko zabalerakoa izango dira. Belar artifiziala asfalto-geruzaren gainean jarriko da, eta piezak 30 cm-ko poliuretano-banda baten gainean jarriko dira. Itsasgarri gisa, bi osagaiko poliuretanoko itsasgarria erabiliko da. Belarra hondarrezko geruza baten eta kautxuzko granuluzko geruza baten bidez beteko da. Silizezko harea biribildua, garbitua eta lehorra, 0.3/0.8 granulometriakoa, 18 kg/m2-koa (+- % 10), eta granulometriazko kautxua, gutxi gorabehera 0.6/2 mm-koa, 14 kg/m2-koa.

Belar artifiziala instalatu eta 6 hilabete erabili ondoren, belarrean dagoen kautxo-maila neurtuko da eta, behar izanez gero, gehitu egingo da (enpresa adjudikazio-hartzailearen kargu).

Zelaiaren planoa 4 m zabaleko zatiekin – III. Eranskina, belar banaketa.

3.6.- Futbol 11ko zelaiaren eta futbol 7ko 2 barne-zelaien jokalekua mugatzen duten lerroak markatzea.

Futbol 11ko zelaiko lerroak zuriak izango dira eta futbol 7koak urdinak. Lerroen zabalera 10 cm-koa izango da. Belar artifizialaren material berekoa izango da.

3.7.- Futbol zelaiaren sare perimetral zaharra kentzea eta neurri bereko sare berria hornitzea eta jartzea.

Sarearen ezaugarriak ondokoak izango dira: iraunkortasun handiko nylon sarea, eguzkiaren aurka tratatua, kolore zurikoa, 4 mm-ko diametrokoa eta 100 mm x 100 mm-eko sare karratukoa. Sarearen perimetro guztian 7 mm diametroko soka sendoarekin.

Egun sarea lotzeko dauden altzairuzko alanbreen indartzea, dagozkien tenkagailuekin (alanbreren bat aldatu beharrik balego, egun dauden ezaugarri berdineko alanbreak ipini beharko lirateke, eta enpresa lizitatzailearen kargu izango litzateke)

Sare berriaren erreferentziazko neurria 352 metro lineal dira, 16 zatitan banatuta, Zati bakoitzaren gutxi gorabeherako neurriak: 22 m luzera eta 5.5 m altuera

3.8.- 6 aspertsore berri hornitzea ureztatzeko kanoietarako eta, horiek instalatzea eta ureztatze sisteman martxan jartzea.

Egungo kanoiek RAIN-BIRD etxeko SR-3003 MODELOko aspertsorea dute. Hornitzen diren aspertsoreek egun ditugunen ezaugarri berdinak izan behar dituzte: botatzen duten ur kantitatea, ureztatze distantzia, etab..

IV Eranskina – Aspertsoreak

ESKU2adb2bb2-33e9-4949-9ec8-b5c7e9ea38b2

3.9.- Gaur egungo estolderia eta kanaleta sistema guztia presiozko urarekin garbitzea eta behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzea, konexio-kutxak irekiz eta horiek garbituz. Era berean, kanaletaren bat apurtuta aurkituko balitz, konpontzea edo aldatzea lizitazio barruan sartuko litzateke.

V. eranskina- drainatze sistemaren planoa

3.10.- Egun dauden zelai inguruko kanaletentzako saretak hornitu eta instalatzea. Kanaletako arketetan dauden saskiak hornitu eta instalatuko dira.

Egun dauden zelai inguruko kanaletek ez dute rejillarik, beraz rejilla berriak jarri beharko dira altzairu galbanizatuzko rejillak izango dira eta ez dira ikusiko zelai artifizialaren azpian joango direlako.

Kanaletako arketetako 10 saskiak berriztu beharko dira. Saski hauek ere altzairu galbanizatukoak izango dira.

3.11.- Sortzen diren hondakin guztien kudeaketa egokia egitea.

4.-ZELAIAREN DESKRIBAPENA

Zerbitzua Ipintzako Udal futbol zelaian egingo da. Jarduketaren azalera osoa 5652 metro karratukoa da, 95 metro x 59,5 metrokoa. Barrualdean, zelaiko lerroak kolore desberdineko soropilez markatuko dira, eta 90 x 56 metroko neurriak izango ditu. Gainera, zelaiaren zati bakoitzean futbol 7ko-zelaia markatuko da.

Futbol 7-ko zelaia kolore urdinez markatuko da, eta jokoz kanpoko marraz gain area txikia eta handia markatuta dira.

5.- BELAR ARTIFIZIALAREN EZAUGARRIAK:

Ez da onartuko Soropil Artifizialaren gutxieneko ezaugarri hauek betetzen ez dituen eskaintzarik. Jarraian zehaztutako modelo zein markak erreferentziazkoak dira, baliokideak onartuko direlarik, eta baliokidetasuna egiaztatzea lizitatzaileari dagokio.

Eskainitako materialaren ezaugarriak deskribatzen dituen atala jarraian azaltzen den ordena eta eduki berarekin aurkeztu beharko dira:

Zuntz mota: % 100 polietilenozko zuntza, erresistentzia mekaniko handiarekin eta UVren aurkako tratamenduarekin (UV DIN 53387 egonkortasuna eta 6000 orduko test W.O.M.), baita tenperaturekiko erresistentzia handiarekin eta aldaketa klimatologikoekin ere. Zuntza monofilamentu motakoa izango da.

– Harizpiaren pisua: 15000 Dtex edo handiagoa, sei ileri dagozkienak.

– Harizpiaren altuera: 65 milimetro (+ - % 10).

– Harizpi mota: monofilamentua

– Kolorea: berde belar-kolorekoa

ESKU2adb2bb2-33e9-4949-9ec8-b5c7e9ea38b2

– Ehun-prozedura: tuftinga.

– Backinga:. BIKOITZA

– Puntada kopurua: metro koadroko 8100 puntu edo gehiago

– Silize-karga: 18 kg/m^2 (+ - % 10)

Kautxua kargatzea: 14 kg /m^2 (+ - % 10)

Eskainitako belar artifizialaren marka eta modeloa, produktuaren fitxa teknikoa eta oinarrizko futbolean erabili daitekeela egiaztatzen duen ziurtagiria (Espainiako Futbol Federazioak exijitutako arautegiko ezaugarriak betetzen dituela).

6.-EXEKUZIOAREN BALDINTZAK:

6.1.- Entregatzeko epea:

Dokumentu batean zehaztu beharko da egin beharreko lanak garatzeko aurreikusitako fase bakoitzaren iraupena. Proiektuak ez du inola ere 45 EGUN baino gehiago iraungo eta zerbitzua gauzatzeko epea 2024ko ekainaren 17an hasi eta abuztuaren 23ra arte izango da.

6.2.- Behin betiko onarpena:

Proiektua behin betiko onartzeko, Bergarako Udalak bidezkotzat jotzen dituen frogak egingo ditu agiri honetako xedea egiaztatzeko eta baliozkotzeko, eta harrera-akta egingo da.

7.- BERMEA

Hornitutako materialen eta egindako lanen berme-epea **4 urtekoa** izango da, kontratuaren arduradunak eta kontratazio-organoak instalazioa osorik jasotzen dutenetik kontatzen hasita.

DILIGENTZIA: Jasota gera dadila Ipintza futbol zelaiko belar artifiziala hornitu eta instalatzea, zelaiaren lurzoruaren planimetria egokia jartzea, zelaiaren sare perimetrala hornitu eta instalatzea, eta, ureztatze eta kanaleten sistemaren berrikuspen eta egokitzapena kontratatzeko Baldintza Teknikoen Plegu hau 2024ko martxoaren 26ko dekretu baten bitartez onartutakoa dela.

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan.

IDAZKARIA

ESKU2adb2bb2-33e9-4949-9ec8-b5c7e9ea38b2

Bergarako Udala

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE:

SUMINISTRO E INSTALACIÓN DE HIERBA ARTIFICIAL EN EL CAMPO DE FÚTBOL MUNICIPAL DE IPINTZA, CORRECCIÓN DE LA PLANIMETRÍA DEL TERRENO, SUMINISTRO E INSTALACIÓN DE RED PERIMETRAL DEL CAMPO Y REVISIÓN Y ADECUACIÓN DEL SISTEMA DE RIEGO Y CANALETAS

1.- ANTECEDENTES:

La última hierba artificial se instaló en 2008 en el campo de futbol de Ipintza. Han pasado 15 años desde que se hizo esto y se ha decidido poner un nuevo campo. Además, se ha decidido dar una reparación a todo el campo de fútbol, repasando tanto el sistema de regadío como las conducciones de agua y renovando la red perimetral. Plano de situación Anexo 1.

2.- OBJETO Y OBJETIVOS:

Con esta dotación de servicios se deberá dotar al campo de fútbol Ipintza de hierba, porterías, red periférica, aspersores y nuevas rejillas. Asimismo, se deberá corregir la planimetría de la base del terreno y reparar, en su caso, el sistema de canaletas de conducción de agua.

3.- TRABAJOS A REALIZAR:

El objeto del presente contrato es la sustitución de la hierba artificial del campo de fútbol de Ipintza en Bergara. Los modelos y marcas que se detallan a continuación son de referencia, admitiéndose equivalentes, correspondiendo a la licitadora la acreditación de la equivalencia.

Concretamente, el adjudicatario deberá realizar los siguientes trabajos:

3.1.- Retirada de la hierba artificial actual y desmontaje de las porterías.

3.2.- reparación de los desperfectos que se detecten en el aglomerado asfáltico: limpieza de la superficie de la base, verificando la correcta planimetría y continuidad de pendiente del a misma, incluso con mangueo si fuera preciso. Se procedera a observación detallada para detectar posible defectos, grietas, desconchados, abultamientos y depresiones, reparándose antes de instalar el nuevo césped. Para la subsanación se procederá a su reparación con asfalto, mortero o autonivelante o resina de poliuretano (asfalto frio, mortero o eslurri), dependiendo de su espesor. Para verificar la correcta planimetría se realizará prueba de riego para confirmar que no existen acumulaciones de agua en toda la superficie de campo siendo el nivel máximo de estancamiento de agua 3 mm (espesor de una moneda de 1 €)

Plano de Planimetría - Anexo II

Se estima que la superficie que precisará de esta reparación equivale al 10% de la superficie total del campo de fútbol. Si la superficie a reparar supera sensiblemente el 10%

ESKU2adb2bb2-33e9-4949-9ec8-b5c7e9ea38b2

de la superficie total del campo se facturará esa demasía aparte según presupuesto previamente aceptado por el Ayuntamiento, siempre que dicho trabajo no se oferte como mejora según lo recogido en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

3.3.- Suministro e instalación de 4 puertas abatibles de fútbol 7, pero fijas con sus respectivas redes. Las porterías ofertadas deben ser las aprobadas por el reglamento federativo español para el fútbol 7.

3.4.- **verificación y reparación**, si fuera necesario, **de las zapatas y anclajes de sujeción de los elementos de equipamiento** que sea preciso (porterias, banquillos, banderines, asperores, etc.) y **montaje del equipamiento deportivo** (banderines de futbol-11 y futbol-7)

3.5.- Suministro e instalación de nueva hierba artificial:

El césped se suministrará en rollos con una anchura máxima de 4 metros. La hierba artificial se colocará sobre la capa de asfalto, encolándose las piezas sobre una banda de poliuretano de 30 cm. Como adhesivo se utilizará cola de poliuretano bicomponente. La hierba quedara lastrada mediante una capa de arena y otra de gránulos de caucho.. L arena de sílice redondeada, lavada y seca de granulometría 0.3/0.8 en una cantidad de 18 kg/m2 (+ -10%) y caucho de granulometría aproximada 0.6/2 mm en una proporción de 14 kg/m2.

Después de 6 meses de la instalación de la hierba artificial, se realizará un control del nivel del caucho en la hierba. En su caso, se añadirá el caucho (a cargo de la empresa adjudicataria).

Plano del campo con tramos de 4 m de anchura - Anexo III de distribución herbácea.

3.6.- **Marcaje de las líneas** que delimitan el terreno de juego del campo de **fútbol 11** y dos campos interiores de **fútbol** 7.

Las líneas del campo de fútbol 11 serán blancas y las de fútbol 7 azules. La anchura de las líneas será de 10 cm. Será del mismo material que la hierba artificial.

3.7.- Eliminación de la antigua red perimetral del campo de fútbol y suministro e instalación de una nueva red de iguales dimensiones.

Las características de la red serán: una red nylon de alta durabilidad tratada contra el sol, de color blanco, de 4 mm de diámetro y malla cuadrada de 100 mm x 100 mm. Con cuerda robusta de 7mm de diámetro en todo el perímetro de la red.

Refuerzo de los alambres de acero actualmente existentes para el empalme de la red, con sus correspondientes latiguillos (en caso de que fuera necesario modificar algún alambre, deberán colocarse alambres de las mismas características que los existentes en la actualidad, siendo a cargo de la empresa licitadora)

La medida de referencia de la nueva red es de 352 metros lineales divididos en 16 tramos, con unas dimensiones aproximadas de 22 m de largo por 5.5 m de alto.

3.8.- Dotación de 6 nuevos aspersores para cañones de riego y su instalación y puesta en marcha en el sistema de riego.

ESKU2adb2bb2-33e9-4949-9ec8-b5c7e9ea38b2

Los cañones actuales disponen de aspersor del MODELO SR-3003 de la casa RAIN-BIRD. Los aspersores que se suministran deben tener las mismas características que los que tenemos en la actualidad: cantidad de agua que vierten, distancia de riego, etc.

Anexo IV – Aspersores

3.9.- Limpieza con agua a presión de todo el sistema actual de alcantarillado y canaletas, comprobando su correcto funcionamiento mediante la apertura y limpieza de cajas de conexión. Asimismo, si se encontrara alguna canaleta rota, su reparación o modificación se incluiría en la licitación.

Anejo V - Plano del sistema de drenaje

3.10.- Suministro e instalación de rejillas de canales en la zona de praderas existentes. Se procederá al suministro e instalación de cestas situadas en las arquetas de los canales.

Las canaletas existentes en torno a la campa no disponen de rejilla, por lo que será necesaria la instalación de rejillas nuevas que serán rejillas de acero galvanizado y que no se verán por su paso bajo la campa artificial.

Se deberán renovar las 10 cestas de las arquetas de los canales. Estas cestas también serán de acero galvanizado.

3.11.- Gestión adecuada de todos los residuos generados.

4.- DESCRIPCIÓN DEL CAMPO

El servicio se realizará en el campo de fútbol municipal de Ipintza. La superficie total de la actuación es de 5652 metros cuadrados, 95 metros x 59,5 metros. En el interior, las líneas del campo se marcarán con céspedes de diferente color y sus dimensiones serán de 90 x 56 metros. Además, en cada parte del campo se marcará un campo de fútbol 7.

El campo de fútbol 7 se marcará de color azul y además de la línea de fuera de juego se marcarán las áreas pequeñas y grandes.

5.- CARACTERÍSTICAS DE LA HIERBA ARTIFICIAL:

No se admitirán ofertas que no reúnan las siguientes características mínimas del césped artificial. Los modelos y marcas que se detallan a continuación son de referencia, admitiéndose equivalentes, correspondiendo a la licitadora la acreditación de la equivalencia.

El apartado descriptivo de las características del material ofertado deberá presentarse con el mismo orden y contenido que se indica a continuación:

Tipo de fibra: fibra 100% de polietileno, con alta resistencia mecánica y tratamiento anti UV (estabilidad UV DIN 53387 con 6000 hs test W.O.M.), así como alta resistencia a las temperaturas y variaciones climatológicas. La fibra será tipo monofilamento.

– Filamento de peso igual o superior a 15000 Dtex, correspondientes a seis pelos.

ESKU2adb2bb2-33e9-4949-9ec8-b5c7e9ea38b2

– Altura del filamento 65 milímetros (+ - 10%).

– Tipo de filamento: monofilamento

– Color: verde hierba.

– Procedimiento textil: tufting.

– Backing: DOBLE

– Número de puntadas: igual o superior a 8100 puntos por metro cuadrado.

– Carga sílice: 18 kg/m 2 (+ - 10%)

Carga de caucho: 14 kg/m 2 (+ - 10%)

Marca y modelo de hierba artificial ofertado, ficha técnica del producto y certificado de que es utilizable en fútbol base (que cumple con las características de la normativa exigida por la Federación Española de Fútbol).

6.- CONDICIONES DE EJECUCIÓN:

6.1.- Plazo de entrega:

Se deberá detallar en un documento el tiempo de duración de cada una de las fases previstas para el desarrollo de los trabajos a realizar. El proyecto en ningún caso tendrá una duración superior a 45 DÍAS y el plazo de ejecución del servicio se iniciará el 17 de junio y finalizará el 23 de agosto de 2024.

6.2.- Aprobación definitiva:

Para la aprobación definitiva del proyecto, el Ayuntamiento de Bergara realizará las pruebas que estime oportunas para la comprobación y validación del objeto del presente pliego, levantándose acta de recepción.

7.- GARANTÍA

El plazo de garantía de los materiales suministrados y de los trabajos realizados será de 4 años a contar desde la recepción íntegra de la instalación por el responsable del contrato y el órgano de contratación.

DILIGENCIA: Para hacer constar que este pliego de cláusulas técnicas para el suministro e instalación de hierba artificial en el campo de fútbol municipal de Ipintza, corrección de la planimetría del terreno, suministro e instalación de red perimetral del campo y revisión y adecuación del sistema de riego y canaletas ha sido aprobado mediante decreto emitido el día 26 de marzo de 2024.

En Bergara, a la fecha de la firma electrónica

LA SECRETARIA

EKS | CSV: **ESKU2adb2bb2-33e9-4949-9ec8-b5c7e9ea38b2**
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410